

JARDUERA



Ikastetxearen hizkuntza-giroa

6

HELBURUAK

- **Ikastetxearen hizkuntza-giroari buruzko daturik esanguratsuenak biltzea, ikasle elebidunak eta eleaniztunak lortzeko asmoari begira, zein neurritan laguntzen duten ikusteko eta hobetzeko moduko alderdi edo eremuak identifikatzeko.**
- **Ikastetxeak -hizkuntzei dagokienez- egin duen ibilbidea aztertzea; etorkizunari begirako ondorioak eta ikasbideak ateratzeko egungo hezkuntza-erantzuna hobetze aldera.**

prozedura

Ikastetxeak dagoeneko dituen datuak ikusita, batzordeak erabakiko du datu gehiago behar ote duen. Jarduera honetan proposatzen diren tresnak baliagarri suerta dakizkioke batzordeari behar duen informazioa eskuratzeko.

Batzordeak, datuak biltzeko lanean, segur aski, irakasle guztiengana jo beharko du. Zuzendaritza-taldeetan eta beste zenbait ardura-lanetan aritutakoen ekarpena oso lagungarria izango da ikastetxearen ibilbidearen mugarririk identifikatzeko orduan. Irakasle guztiengana, profesionalen hizkuntza-egoerari buruzko zenbait datu eskuratzeko.

Datuak jaso eta antolatutakoan, identifikatuko da ikastetxearen hizkuntza-giroak zein aukera eskaini eta zein erronka planteatzen dituen hizkuntza-xedeen lorpenari begira.

emaitza | ekoizpena

- Ikastetxearen hizkuntza-giroaren deskripzioa.
- Ikastetxearen hizkuntza-ibilbidearen narrazioa, eta egindako ibilbidetik eratorritako ikasbideak eta ondorioak.
- Esku-hartzeko ildoen eta hobetzeko proposamenen identifikazioa.

denbora | denboralizazioa

Hiru aste [5. eta 6. jarduerak aldi berean egitea gomendatzen da].

tresnak

- 6.1. tresna.** Galde-sorta irakasleentzat.
Ikastetxearen hizkuntza-giroa | 71-72 or.
- 6.2. tresna.** Ikastetxearen hizkuntza-giroa.
Ikastetxeko datuen laburpena, batzordeak egina | 73-74-75-76-77-78 or.
- 6.3. tresna.** Batzordearentzako gidoia.
Ikastetxearen hizkuntza-giroa eta -ibilbidea | 79-80-81 or.

ereduak | adibideak

6.1. adibidea. Ikastetxearen hizkuntza-giroaren eta -ibilbidearen analisisa | 121-122. or.



Baliteke ikastetxeak datu horietako batzuk dagoeneko edukitzea, Hizkuntza Normalizazio Proiekturako diagnosian jaso dituelako.